

Musika Garaikideko Zikloa Tabakalerara lekualdatu da eta aurten emakume musikagileen obretan jarriko du arreta

- Kontzertuak abuztuaren 10ean, 14an eta 16an izango dira, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan.
- Errepertorioaren erdia baino gehiago jatorri askotariko emakume konpositoreek sortutako obrek osatzen dute.
- SIGMA Project-ek Jon Esnaola musikagilearen *Zurumurru* obra estreinatuko du eta Quatuor Bélak, berriz, Pablo Sorozabal Konposizio Lehiaketaren azken edizioa irabazi duen pieza: Pablo Franchelliren *Surcando un mar de sueños inmemoriales*.
- Sarrerak salgai quincenamusical.eus webgunean eta Kursaleko eta Victoria Eugenia antzokiko leihatiletan.

Musika Hamabostaldiaren **Musika Garaikideko Zikloak** jaialdiko musika-proposamen berritzaile eta ausartenetako batzuk biltzen ditu, egungo eta azken urteotako sorkuntzan oinarritutako errepertorioarekin batera. Lehen mailako taldeen eskutik, bere programazioak Euskal Herriko zein nazioarteko **konposizioaren azken joeretako batzuk** publikoari aurkeztea du helburu. Konpromiso horri jarraipena emateko eta hura sendotzeko, zikloa **Tabakalerara, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro** lekualdatu da. Horrenbestez, Hamabostaldiko musika eta dantza garaikideko programazioa Tabakalerako gainerako diziplina artistikoekin elkarriketetan eta harremanetan izango da.

Abuztuaren 10, 14 eta 16an estilo ugariko kontzertuak izango dira, askotariko jatorri eta estetiketako musikak izango dira entzungai, gaur egungo sorkuntza berrienak zein errepertorio historikoko lanak. Programazioak, gainera, **emakume konpositoreen** presentzia nabarmena izango du; izan ere, haienak dira **programatutako obren %60 inguru**. Horrez gain, **Jon Esnaola** tolosarraren *Zurumurru* lanaren **erabateko estreinaldia** izango da zikloko une aipagarrienetako bat.

Abuztuaren 10ean, ziklo honen ibilbideari estu lotutako **SIGMA Project** saxofoi-laukotea ariko da. Duela 18 urte Musika Hamabostaldian eman zuen bere lehen kontzertua eta ordutik nazioarteko erreferentziatzko taldeetako bat bilakatu da. Laukoteak Glass, Haas eta Shawren lanak biltzen dituen programa aurkeztuko du, baita duela gutxi sortutako bi partitura ere: Chaya Czernowinen *Undersongs* lanaren aukeraketa bat, duela gutxi estreinatua, eta Jon Esnaolaren *Zurumurru* lanaren erabateko estreinaldia.

Abuztuaren 14an, Quatuor Béla hari-laukote frantsesak lehen aldiz parte hartuko du zikloan. Estreinaldi eta enkargu berrien aldeko jardun oparoa duen taldeak munduko lau bazterretako lau emakume konpositoreren lanak interpretatuko ditu. Egitarian Rebecca Saunders britainiarraren, Misato Mochizuki japoniarraren, Sofia Avramidou greziarraren eta Selim Jeon hegokorearraren lanak izango dira entzungai. Horrez gain, Pablo Sorozabal Konposizio Lehiaketaren azken edizioko partitura irabazlea estreinatuko dute: Pablo Franchelli konpositore argentinarren *Surcando un mar de sueños inmemoriales*.

Dúo Cassadó bikoteak **abuztuaren 16an** amaiera emango dio Musika Garaikideko Zikloari, XIX. mendearen hasieran Erromantizismoaren garapenean funtsezko izan zen Jenako Zirkuluari eskainitako omenaldiarekin. Biolontxelo eta piano bikoteak iraganeko nahiz gaur egungo sortzaileen lanak bilduko ditu, espiritu erromantiko horrekin bat egiten duten egileenak, hain zuzen: Pärt, Tanaka, Richter, Boulanger eta Price. Martina Ampuero artistaren elementu bisualek lagunduko dute Dúo Cassadóren interpretazioa.

Sarrerak, 15 euroko prezioan, **quincenamusical.eus** webgunean eta **Kursaal** zein **Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan** eros daitezke. Sarrerarik geratuko balitz, kontzertu bakoitza hasi aurretik Tabakaleran eskuratu ahal izango dira (eskudirutan soilik).

Hauek dira Musika Garaikideko Zikloa osatzen duten **3 kontzertuak**:

SIGMA Project – Abuztuak 10, 20:00 – Tabakalera (1 Hall-a)

SIGMA Project bere lehen kontzertua eman zueneko ziklora itzuliko da. Emanaldi gogoangarri hartatik 18 urte igaro ondoren, egun mundu mailako erreferentziazko saxofoi-laukote bilakatuta, SIGMA Project bi hamarkada hauetan bidelagun izan dituzten hainbat lan biltzen dituen egitarauarekin itzuliko da jaialdira: Philip Glassen *1. Kontzertua saxofoi-laukoterako*, George Friedrich Haasen *1. Kuartetoa* edo Caroline Shaw-ren *Entr'acte*. Musika-lan horiekin batera, berriki sortutako bi obra ere aurkeztuko ditu: Chaya Czernowinen *Undersongs* lanaren hautaketa bat; egile israeldarrak taldearentzat sortu eta joan den maiatzean Galizian estreinatutako konposizio zabala da *Undersongs*, kritikak «maisulan» gisa goraiatua, Czernowinen arabera, «zenbait musika zatiz osatutako palimpsesto bat da [...], denboraren eta natura etsai baten presioaren aurrean bizirik irauteen saiatzaren direnak, tarteka existentzia utopiko batekin amesten duten bitartean». SIGMAk, gainera, Jon Esnaola Tolosako konpositore gaztearen *Zurrumurru* lana estreinatuko du, «saxofoi kuarteto honen bidez sortzen eta biziarazten diren marmar antzeko soinuak» islatzen dituen partitura.

SIGMA Project XXI. mendeko ikerketa eta sorkuntzako musika instrumentalean nazioarteko erreferentzia den saxofoi lauakotea da, Milango Teatro alla Scala eta Buenos Airesko Teatro Colón antzoki ikonikoetan lehen aldiz aurkeztu den mundu mailako bakarra. Madril eta Euskal Herri artean 2007an Andrés Gomis, Ángel Soria, Alberto Chaves eta Josetxo Silguero sortua, konpositore garaikideen zerbitzura dagoen musika-ikerketarako laborategia da. Ehun estreinaldi inguru egin ditu, 250 kontzertu baino gehiagotan banatuta: AEB, Argentina, Kolonia, Mexiko, Txile, Brasil, Ekuador, Alemania, Frantzia, Irlanda, Eskozia, Ingalaterra, Italia, Polonia, Errumania... Jarduera diskografiko nabarmena du, eta gaurdaino hamabost disko plazaratu ditu.

Quatuor Béla – Abuztuak 14, 20:00 – Tabakalera (1 Aretoa)

Quatuor Béla hari-laukote frantsesak ibilbide sendo eta oparoa egin du bere esparruan. SIGMA Projecten antzera, sorkuntza berria izan du ardatz eta konpositore ugariren lanak estreinatu ditu. Musika Hamabostaldian egingo duten lehen agerraldirako, ohiko lankide dituzten eta munduko beste horrenbeste txokotakoak diren lau emakume konpositoreen lanak aukeratu dituzte: Rebecca Saunders britainiarraren *Fletch* (2012); Misato Mochizuki japoniarraren *Brains* (2017); Sofia Avramidou greziarraren *What Can That Be But My Apple Tree* (2023); eta Selim Jeon hegokorearraren *Hari kuartetoa*, aurrean bertan amaitua. Pablo Sorozabal (Gipuzkoako Foru Aldundia – Musikagile Nafarren Elkarteak) Konposizio Lehiaketaren azken edizioako obra irabazlea estreinatuko dute: Pablo Franchelli argentinar konpositorearen *Surcando un mar de sueños inmemoriales*, elkarrekin lotutako pieza laburren bidez, hari kuarteto baten barruan aurki daitezkeen hainbat konbinazio instrumental — bakarlaria, bikotea, lauakotea — arakatzen ditu, «dentsitate eta egitura desberdineko diskurtso musikala sortuta [...] irudi poetikoek zeharkatua».

Quatuor Bélak tradizioaren eta modernitatearen artean egin du bere bidea. Hari lauakotearen erreperitorio klasikoarekin konprometituta, musika klasikoko areto onenetan aritu ohi dira (Parisko Filarmonikoa, Mariinsky Antzokia, BeethovenFest, etab.). Gainera, hari-lauakotearen tradizioa egungo musika-esparruan bizirik eta presente mantentzeko lan egiten dute. Hainbat belaunalditako musikagileekin egindako enkarguak eta sormen-lanak Prix de la Presse Musicale Internationale-rekin saritu zituzten 2015ean. Quatuor Béla lauakotea bere «deabruzko teknikagatik» (Télérama) eta musikarekiko konpromiso sendoagatik da ezaguna. Azken urteotan, konpromiso horri erantzunez, XX. mendearen hasierako Europako Erdialdeko konpositoreen lanak zabaltu eta ezagutarazteko dihardu, besteak beste, Janáček, Schulhoff, Krása, Bartók, Szymanowski eta Webernenak.

Dúo Cassadó – Abuztuak 16, 20:00 – Tabakalera (1 Aretoa)

Dúo Cassadó-k Jenako Zirkulua omenduko du, Erromantizismoaren garapenean funtsezkoak izandako idazle, filosofo eta artistek osatutako taldea, poesia, artea eta filosofia integratzea helburu zuen mugimendua. Euren ideietan oinarrituta, gizakiaren eta naturaren arteko lotura nabarmendu zuten. Artea kezka horien isla izatera igaro zen, emozioa eta arrazoia uztartuta eta gizakiaren eta haren

ingurunearen arteko oreka hauskorra jasota. Ikuspegi horrek beste diziplina artistiko batzuetan ere izan zuen eragina, musikan, besteak beste. Garai guztietako konpositoreek, Erromantizismoaren idealen eraginpean, gizakien emozioekiko eta naturarekiko sentiberatasun sakona adierazi zuten, artearen, emozioaren eta natura-ingurunearen arteko lotura sortuta. Dúo Cassadó erromantizismoaren ondorengoko eta egungo errepertroriotik aukeratu ditu izaera horrekin bat egiten duten hainbat obra. Entzungai izango diren lanak honako hauek dira: Arvo Pärt *Für Alina* eta *Fratres*, Karen Tanakaren *The Song of Songs*, Max Richter *On The Nature of Daylight*, Lili Boulangerren *Reflects & Nocturne*, Florence Priceren *Adoration & Night* eta Philip Glassen *Opening*. Horien interpretazioaren osagarri, Martina Ampuero artistak sortutako elementu bisualak izango dira.

Dúo Cassadó —Damián Martínez (biolontxelo) eta Marta Moll (piano)—, egungo ganbera-musikako talderik nabarmenenetakoa da eta mundu osoko entzunareto eta jaialdi entzutetsuenetan eman dituzte kontzertuak. Warner Classics zigiluarekin argitaratutako bere diskografian honako lan hauek nabarmentzen dira: *Rapsodia del Sur* (Melómano de Oro saria), *Rojo* —Halffterren *Fantasía Española* obraren lehen grabazioa jasotzen duena— eta *Hypnotik*, nazioartean oihartzun eta zabalkunde handia izan duen disko kontzeptuala. Tomás Marco, Laura Vega, Salvador Brotons eta Marina Ortigaren mailako egungo konpositoreen obrak estreinatu dituzte. Duela gutxi, Martina Ampuero ikus-entzunezko artistarekin elkarlanean, *Esencia de los Elementos* aurkeztu dute, musika klasikoa eta bideo-artearen uztartzen dituen proiektua. Biak Musikeneko irakasleak dira, eta Damián Martínezek, gainera, ESMUCen ere irakasten du. Marta Moll, berriz, TVEko La2 kateko *Caminos de la Música* saioaren sortzailea da, eta *Hot Down* aldizkariaren ohiko lankidea.